



Peio Aierbe

MUGAK-EKO ARDURADUNA



ACHUR EUSKAL BATZORDEA/
GLIDO VANGOLDENHOVEN

MUGAK, Inmigrazioa, Arrazakeria eta Xenofobiaren Ikerketa eta Dokumentazio Zentrua orain dela 10 urte sortu zen Donostian. Komunikabideek inmigrazioaren gaiari ematen zioten tratamendu okerrak eragindako amorruek bultzatu zuen bere sorrera. MUGAKek egunkarien lana jarraitzen du, aztertu eta etorkinekiko kazetaritza serio eta errespetuzkoa bultzatzeko ekimenak antolatzen ditu. Peio Aierbek, bertako arduraduna elkarrizketa honetan gaur egungo informazio iturrien zirrikituak azaleratzen ditu. Bere jardun bizian, indarra eta borrokarako grina agerian geratzen dira.

“Komunikabideek lagundu egiten dute gizarteak inmigrazioa arazo eta mehatxu bezala ikusten”

Amaia Agirresarobe • ACNUR EUSKAL BATZORDEKO KIDEA

Ze balorazio egiten du Mugakek gaur egun inmigratioari komunikabideek ematen dioten tratamenduz? Integrazioa bultzatzen al dute?


Guk ateratako ondorioak ez dira berriak beste azterketa batzutan ikusitakoekin alderatuta. Anasili gehienak bat datoz inmigratioari ematen zaion tratamendua estereotipatua dagoela esaterakoan. Etorrinen iritsiera, zailtasunak eta arazoak azpimarratzen dituzte. Ematen den informazioa ez da osoa eta inmigratioa arrisku bezala aurkezten du, behin eta berriz fenomenoaren alderdi zorigaitzkoenak nabarmenduz: paterak eta kayukoak. Inmigratioaren onurak aldiz oso leku gutxi du prentsan eta etekinen ikuspegitik soilik begiratuta erakusten dute. Inmigratioa onuragarria da guri ongi badatorkigu eta positiboa da Europar Batasunean bizi direnek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen baditu. Guretzat ikuspegi hau ez da balidua.

Komunikabideek lagundu egiten dute gizarteak inmigratioa arazo eta mehatxu bezala ikusten. Bultzatu egiten du etorkinen aurrean defenditu egin behar deneko ustea. Hau mundua alderantziz erakustea da. Inmigratioa arazo izan liteke, baino etorri behar duenarentzat, ez gure gizartearentzat. Im-

migratioak sortzen dituen arazoen aurrean babestu beharra dugunaren ustea zabaltzearen ardura handia dute komunikabideek, bai ekonomia, bai segurtasuna baita kultur identitatearekin lotutako gaiak jorratzen dituztenean. Cadena ser kateak egindako ikerketa batek zioen gaur egun inmigratioa arazo nazional nagusi bezala ikusten zuela jendeak. Sines-tezina da. Komunikabideen papera kontuan hartuta bakarrik esplikatu daiteke datu hau. Gizartean gehiengo handi batek etorkinekin tratatu zuzenik ez badu, beraiei buruz duen irudia komunikabideek erakusten diotenaren arabera da.

Kazetaritza zein dira jarrera kaltegarrienak inmigratioa mehatxu bezala erakusteko orduan?

Idatzizko komunikabideek etorrera jendetsuaren ideia nabarmentzen duten irudiak erabiltzen dituzte. “Uholde”, “bolada”, “inbasio” edota “olde” bezalako terminoak erabiltzen dira. Medioen ikuspegitik jende multzoak bizimodu hobe baten bila etortzea negatiboa da, eta eragotzi beharreko hondamendia sor lezake. Ezin da egunkari guztiei buruz orokorrean hitzegin baina, orohar etorkinei buruz hitzegtiko “ilegal” terminoa erabiltzen da. Eta ilegala legearen aurkako bada, ilegal adjetiboa delituarekin lotzen da eta etorkina hortaz gaizkilearekin. Askotan delituen batean zerikusia izan duen norbaitez ari-



ACNUR EUSKAL BATZORDEA/GUIDO VANGOIDSENHOVEN


tzerakoan bere jatorria eta ze etnietakoa den azpimarratu egiten da. Datu hauek ez dira delituaren gainean erabakigarriak, baina aurreiritzi negatiboak indartzeko balio dute. Honelako jokaerek etorkinak kriminalizatzen laguntzen dute. Jarrera hauek ez dira ezjakintasunagatik egiten, interes ideologiko eta enpresarialen araberako informazio politiken mesetara daude.

Komunikabideek immigrazioaren fenomenoaren aurrean berdin jokatu al dute beti edota aldatu egin da jarrera azken urteetan?

Aldaketa asko izan da azken urteetan. Immigrazioaren bolumenarekin lotutakoa da lehendabizikoa. Etorkinen iritsiera hazteak islada zuzena du komunikabideetan. Askoz ere gehiago idazten da gaiaz lehen baino. Bestalde gainera, immigrazioa ez da bakarrik lotzen era legal edo ilegalean herrialde batera iristearekin. Etorkinak elkarbizitzan, gizarte politikan, hezkuntzan eta osasunean zeresana duten giza taldea dira orain. Ez dira iritsi bakarrik egiten, herrialdean bertan bizi dira. Ezinbestean, albisteen gaiak ere zabaldu egin dira beste esparru batzutarara, etorkinen iritsieraz haratago. Immigrazioari ematen zaion tratamendua ordea oso gutxi aldatu da. Immigrazioaren fenomenoari mehatxu baten tratamendua ematen zaio.

Komunikabide guztientzat orokortzeko modukoa al dira ondorioak? Salbuespenik ba al dago?

Euskal Herriko komunikabideei buruzko ondorioak ezin dira orokortu. Medio guztiek ez dute informazio politika bera. Badira sentsazionalistagoak, era lotsagarriagoan immigrazioa munizio politiko soil bat bezala erabiltzen dutenak. Beste medio batzuk aldiz, sentiberagoak dira elkarrekin eskatzen duten sosegua aurrean eta immigrazioari tratamendu arduratsua ematen diote. Kasu hauek baina ezin esan ohikoena direnik. Honek ez du esan nahi komunikabideak baztertu ditzakegunik. Akats izugarria litzateke. Komunikabideek gauza interesgarri asko kaleratzen dituzte, immigrazioa gerturatzeko erreportai baliotsuak esaterako, kontuan hartu beharreko ikuspegiak azaltzen dituztenak. Kasu hauetan medioek sekulako garrantzia izan dezakete. Bereziki politikoei izua diote komunikabideek giza eskubideen urraketak salatzeari. Ezin dira hortaz komunikabideak ikuspegi batetik bakarrik baloratu.



El Diario Vasco

...nido un marroquí en Málaga tras clavar un
 ...actor a su mujer
 ...le apretó el corazón en apatía de los papeles de la industria y de
 ...trabaja de él, y un relato



El País

...EN ALMERÍA. Un total de 771 inmigrantes en Almería, entre ellos 11 marroquíes
 ...norte durante la noche y entregados al Cuerpo Nacional de Policía
 ...de que el número bajó a 1.000 personas

El Mundo

...necesario mostrarlo ha sido clave
 para que ahora que comen
 ... se nos venga en cuenta
 ... se sean aceptadas por los

El Mundo

LA MAYOR AVALANCHA DE 'SIN PAPELES'

...actuando sobre el origen. En este
 sentido, el plan África puesto en marcha
 por el Gobierno, es una iniciativa que puede
 dar resultados, para lo cual las auto-
 dades españolas deben mantener la con-
 tancia en las ayudas y la presión diplo-
 mática en los países de donde salen los
 ... los países de donde salen los
 ... de los pa-
 ... podría ser

El Mundo

**La avalancha de inmigrantes por mar
 batte todos los récords**

...triplican la cifra de 2005 y superan la marca de 2.583
 ... la tendencia a la baja de los dos últimos años

... en el extranjero, impera
 ... los años 2002 y 2003, que
 ... hasta ahora, los más fáciles en
 ... por más durante los pri-
 ... meses, y luego la ten-
 ... a la baja de los dos últimos

Gobernuak eta administrazioak dira idatzizko komunikabideen informazio iturri nagusi immigrazioarekin lotutako albisteetan. Zein da beraien erantzunkizuna diskurtso arrazista eta xenofoboa zabaltzerakoan?

Mugakek 2002an egindako azterketaen arabera, asaldatzeko modukoa da immigrazioaren gaineko informazio iturriak zeinen ofizialak diren ikustea. Albisteen % 21ean poliziaren informazio iturriak erabiltzen dira. Datu honi administrazioaren iturriak geitu ezker iturri ofizialen pozentaiak % 73 da. Etorkinen testigantza berriz albisteen % 10,3 bakarrik jasotzen da. Azalpenak bat baino gehiago dira. Batetik, komunikabideek gobernuari sinesgarritasun haundiagoa ematen diote, gobernuaren aurka egin nahi duten gai jakinetan ez denean. Salbuespen hauen aparte, agintari ofizial batek sinesgarritasun haundiagoa dauka, nahiz eta ahula izan, edozein hiritarren hitzak baino. Esan beharrik ez dago zer gertatzen den informazioa etorkinen batek emandakoa denean. Bestalde, gobernuko hainbeste informazio erabiltzea rutina informatiboari egotzi behar zaio. Gehienetan albisteak agentzien informazioa erabiltza idazten dira. Laneko errutina honek lana erosoago egiten du, kazetaritza serioago egiteak bitarteko gehiago eta denbora gehiago eskatzen bait ditu. Gainera, joera hori areagotu egiten da ordutegiaren murrizketarekin, lan baldintzen prekaritatearekin eta espezializazio ezarekin. Agintariak eta profesionalak normalean etorkinen gaineko albisteak zabaltzeko kate informatiboan lehen zati dira. Kalitatezko tratamendua sustatzeko orduan hortaz erantzunkizun handia dute.

Betetzen al dute beraien egitekoa?

Askotan komunikabideek zabaltzen dituzten mezu baztertzaien jatorria gobernuko agintariek sinatutako txostenetan dago. Euskal Herrian gertuko adibidea daukagu. Orain bizpahiru urte, SOS Arrazakeriak gisa honetako titularrak idazten zirela salatu zuen: "Sarahuiar baten lapu-

“Euskal Herriko komunikabideei buruzko ondorioak ezin dira orokortu. Medio guztiek ez dute informazio politika bera. Badira sentsazionalistogak, era lotsagarriagoan immigrazioa munizio politiko soil bat bezala erabiltzen dutenak. Beste medio batzuk aldiz, sentiberagok dira elkarteek eskatzen duten soseguaurrean eta immigrazioari tratamendu arduratsua ematen diote”

“Agintariak eta profesionalak normalean etorkinen gaineko albisteak zabaltzeko kate informatiboan lehen zati dira. Kalitatezko tratamendua sustatzeko orduan hortaz erantzunkizun haundia dute.”

rreta merkatuan”, edota” kolonbiar batek bere kidea hil du”. SOS Arrazakeria arduradun guztiei segika ibili zen, era hontako informazioek albisteari ez diotela ezer eransten salatzen, eta etorkinak kriminalizatzen dituela salatzen. Salaketa lan honek zenbait medioren haserrea sortu zuen. Kanpainaren ondorioetako batek zioen etorkinak kriminalizatzen zituzten albiste horietako askoren informazio iturria polizia zela. Orduan udalei, Ertzaintzari noski eta baita Barne Ministerioari ere, datu horiek ez zabaltzeko eskatu zitzaizkien. Kanpaina honen ondoren, zenbait udalek, Donostiakoak kasu, neurriak hartu zituzten. Kanpainaren eraginez, Arartekoak bere azterketa propioa egin zuen, ondorio berberak ateratu zituen eta datu hauek isilpean gordetzeko proposamena egin zien administrazioei. Bi ekimenak administrazioari zuzenduta daude, medioei beharrez. Kontu hau mila aldetatik erasotu beharra dago.

Ze beste ekimen izan daiteke baliogarria medioek egun immigrazioaz aritzeko nagusiki duten modua zuzentzeko?

Lehendabizi arazoaren kontzientzia hartu behar da. Hori oraindik orain ez da existitzen. Medioak ez dira arduratzen. Albisteak egiten dituztenek ez daukate inolako interesik zuk gauzak nola

egin behar dituzten haiei esateko. Instituzioek eta gizarteko eragileek kontzientzia hartzeak bitartekoak, denbora eta baliabideak jartzea esan nahi du. Ez da nahikoa arazoaz jabetzearekin. Ondoren, esparru hortan ekintza estrategiak martxan jarri behar dira. Hau da lehendabiziko baldintza. Oso urrun gaude ordea. Askotan gaira egiten diren gerturatzeak akademikoak edo seminariotan egiten direnak dira, rutinario bihurtzen dira eta ez dute oihartzunik. Eta kontzientzia hartzea esaten dudanean guztioz ari naiz, baita etorkinekin solidaridadearen alorren lan egiten dugunoz ere. Ondoren errealidade hori aldatzeko politikak indarrean jarri behar dira. Esku hartze horiek anitzak behar dute izan.

Informazioaren kalidatzeko tratamendua bermatzeko, medioetan irizpideak finkatzea eta profesionalentzat eskuliburuak kaleratzea da esku hartzearen adibide bat. Baliogarriak al dira barne funtzionamendurako gidaliburuak?

Orain dela urte batzuk, Kataluinako Kazetarien Kolegioko Kazetaritza Solidarioko Batzordeak informazio enpresentzat osatu zuen immigrazioa jorrazteko gomendio zerrenda bat. Kolegioak berak bul-tzatutako gisa honetako ekimenak salbuespenak dira. Aurrerago, gida honi aldaketa txiki batzuk egin, koma bat hemen jarri eta bestea handik kendu eta toki gehiagotan ezarri da. Horrelako neurriek jokatibideak markatzen dituzte eta kazetariei lanerako tresnak ematen dizkiete. Nahi edo ez, eragin egin behar die gainera. Gisa honetako ekimenek ordea, ekintza osagarriak eskatzen dituzte eraginkorrak izateko.

2000. urteko apirilean, hogeiren bat euskal mediok protokoloa sinatu zuten Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Jaurlaritzako Sailarekin eta Etorkinei babesa ematen dien ONGen Koordinadorekin, Harresiak Apurtuzekin, komunikabideetan etorkinen irudia babesteko konpromezua hartzeko. Paper bustia al da?

Kasu hontan hitzez hitz hartu zen Kataluinako Kazetarien Kolegioaren protokoloa eta medioetara zabaldu zen hauek atxikimendua sinatzeko. Ekitaldibira komunikabide mordojoan joan ziren. Ni izan nintzen sinadura ekitaldian eta esperpentikoa iruditu zitzaidan hura. Ez nuen pentsatzen hainbeste medio zegoenik. Kristo guztiak sinatu zuen, egunkari guztiek, irrati guztiek. Zeinek ez du azaldu nahi argazkian arrazakeriaren aurkari bezala edo xenofobiaren salatzaile bezala? Azkenean ez zuen ezertarako balio

izan. Gisa hontako ekimenak figuratzeko bakarrik badira, ez dute balio informazioa erantzunkizun gehiagorekin tratatzeko. Azkenean, medioek kazetaritza modu berean egiten jarraitzen dute baino diskriminazioaren aurka eta intentzio onak adierazten dituen protokoloa sinatzeak ema-



El Mundo



ten dien zilegitasunarekin. Merez du ekimen hauek bultzatzeak, atzetik erreskan gehiago badatoz.

Mugak-ek nora bideratzen ditu baliabideak aldaketak bultzatzeko?

Mugak-ek medioetako informazioaren gainean lan egiten duten pertsonak hornitzen ditu kritika eta kontrola egiteko. Nolabait gizarteari medioak kontrolatzeko bideak eman nahi dizkiogu. Komunikabideak, enpresak izateaz gainera, funtzio soziala dute. Ez dira Chupa-chupsak egiten dituzten enpresak. Gizartean garrantzia dute eta honenbestez galbahe desberdinen bitartez gizartearen kontrola gainditu beharko lukete. Ez da adierazpen askatasuna mugatzea, askatasun hori indartzean datza. Gaia korapilotsua eta arantzatsua da, eta hori argudiatzen dute komunikabideek edozein aldaketa sahiesteko. Kontrolaren eremuko neurri hauekin batera, iturrien alorrean ere esku hartzeko ahaleginetan ari gara, informazio iturri ofizialen aurrean, kazetarien esku iturri alternatiboak jartzeko. Lobby lanak ere egiten ditugu hortara prestatzen diren kazetariak. Komunikatzaileen prozesu guztian eragin nahi dugu, horretarako elkarte, profesional eta ahal den heinean instituzioetan ere esku hartzeko. Akordioak sinatzen haserretako joan beharra dago.



ACNUR EUSKAL BATZORDEA/GUIDO VANGOIDSENHOVEN

“Nolabait gizarteari medioak kontrolatzeko bideak eman nahi dizkiogu. Komunikabideak, enpresak izateaz gainera, funtzio soziala dute. Ez dira Chupa-chupsak egiten dituzten enpresak. Ez da adierazpen askatasuna mugatzea, askatasun hori indartzean datza.”

Kataluinan bada batzorde bat, sistematikoki jokaeraren gida betetzen ez duten komunikabideak zigortzeko eskumena duena. Zer deritzozu instituzioek legedia ezartzeari, bide egokia al da?

Komunikabideen gaineko araudiak ezartzeko ekimenak aspaldikoak dira. BBCrena da adibide ezagunena. Espainiako estatuan ordea, Kataluinako Ikusentzunezkoen Batzordearena da kasu bakarra. Profesionalek sortutako erakunde independentea da, lanbidean kalidadea bermatzeko diru publiko ordaintzen dena. Lan bikaina egiten dute gainerako autonomietako utzikierarekin alderatuta.

Erakunde honek izaera betearazlea, exekutiboa du. Bere txostenak erabakigarriak dira irriti eta telebistako frekuentziak banatzeko orduan. Erabakigarriak izan daitezke kontzesioak galtzeko orduan ere, ezarritako irizpideak betetzeko orduan, segida batekin eta maiztasun baten irregulartasunak ikusi ezker, nahiz eta jokaera hauek legeak ez zigortu. Kataluinako Ikusentzunezkoen Batzordeak duen botereak komunikabide askoren haserrea eragin du.

Bere ekintzak zailtasunez beteak daude. Nik uste

du ordea gisa honetako ekimenak bultzatu behar direla. Beharrezkoa da komunikabideen gaineko kontrola epaitegien esku bakarrik ez uztea. Zigorren jurisprudentziak jasotzen duenetik kanpo ere, eragin negatiboak dituzten jarduerak burutzeko eremu zabala bait dago kazetaritzan. Alde hortatik Kataluinako Ikusentzunezkoen Batzordea gertutik jarraitu beharreko adibidea da. Honenbestez, egiteko asko dago. Ez da behar erakuslearekin seinalatzea bakarrik, ikertu egin behar da, proposamen zehatzak egin behar dira bai alor akademikotik baita kazetarien lanbidetik eta administrazioetik ere.

Optimista al zara informazioaren tratamenduan aldaketak izateko dauden aukeren aurrean?

Medio gehienetan bilakera ez da pozik egoteko modukoa. Ez naiz hortaz baikorra aldaketa nabarmen izateko dauden aukeren aurrean. Baina lortzen dena apurra bada ere, asko eragingo lieke kontu honetan jasaile direnei, hezur haragizko pertsonen. Bilakera txikiak ere bizitza aldatuko lieke. Gutxi batzuri bederen. Eta hori ez da alperrikako berriketa. ■